

PRENTSA OHARRA

“Lea-Artibaiko Elikagaien eta Artisauen Eguna” bertan behera

Azken egunetan Markina-Xemeinen COVID-19aren intzidentzia areagotu denez eta gauden egoeran egunez eguneko errealitatea kontuan hartu beharra dagoenez, biharko azoka bertan behera uztea erabaki dute antolatzaileek. Osasun Arloko arduradunen azken orduko eskaerak eta Ertzaintzaren gomendioek berretsi egin dute erabakia.

Covid-19ak eragindako egoera dela eta, Urriko Azoka Nagusia bertan behera geratu zen. Urteroko zitaren ordeztu, formatu txikiago bateko ekimena antolatuta zegoen biharko, Lea-Artibaiko lehen sektorea eta bertako produktuak babesteko. Ahalegin eta lan handia egin da egoera berezi honetan azoka aurrera eramateko, baina azken orduko informazioak ikusita, ezin izango da ekimena aurrera eraman.

Udalak gogorarazi nahi du bihar ez dagoela azokarik eta ezta jairik ere Markina-Xemeinen. Beraz, egoerak eskatzen duen moduan, arduraz eta erantzukizunez jokatzeko deia egiten zaie herritarrei.

Markina-Xemeinen, 2020ko urriaren 9an

NOTA DE PRENSA

Suspendido el “Lea-Artibaiko Elikagaien eta Artisauen Eguna”

Ante el incremento de la incidencia del Covid-19 que se ha dado en Markina-Xemein durante los últimos días, se ha decidido suspender la feria que iba a celebrarse mañana, por decisión de la propia organización y a petición de última hora de los responsables sanitarios y por recomendación de la Ertzaintza.

Debido a la situación generada por la crisis sanitaria del COVID-19, se suspendió la tradicional Feria agrícola y ganadera de Octubre. En su lugar, los organizadores han estado trabajando en la organización de una feria de menor formato, con el objetivo de brindar la oportunidad de mostrar sus productos a los productores y artesanos de la comarca de Lea-Artibai. La organización ha realizado un gran esfuerzo en su organización, pero viendo las informaciones de última hora, se ha tenido que suspender la cita.

El Ayuntamiento quiere recalcar que mañana no habrá feria en Markina-Xemein, pero tampoco fiesta, e insta a la ciudadanía a actuar con responsabilidad, en cualquier caso, pero más ante la situación de crisis sanitaria que vivimos.

En Markina-Xemein, a 9 de octubre de 2020